

## Nutrizio behar espezifikoak 413-1

**EROSKIk, 4. konpromiso honen bidez, elikadura espezifiko bat behar dutenei erantzuten die, nola eta produktuen eskaintza segurua eginez, erosketa arrunt baterako adinako kopuruan eta sakrifizio ekonomiko egokian.**

**B**ereziki aintzat hartzen ditugu gaixotasunak direla-eta sortzen diren elikadurako behar espezifiko batzuk, hala nola zeliakia, alergiak eta intolerantziak. Horregatik, harremanetan gaude gaitz horien harira sorturiko entitate eta taldeekin, hala nola Espainiako Zeliakoen Elkartearen Federazioa eta Espainiako Diabetesaren Federazioa. Horri esker, lehen eskutik jakin ditzakegu haien eskariak eta kezakak, eta gure elikagai sorta zabaldu haien eskariei behar bezala erantzuteko. Gainera, zenbait entitaterekin dihardugu askotariko kanpainetan haien gaixotasunak ikusarazteko eta jendea kontzientziatzeko.

Orain dela hamar urte, produktuen etiketak hobetzea eta argitzea erabaki genuen EROSKIn alergenoen gaineko informazioa emanez. Hala, alergenoen gaineko 2220/2004 Errege Dekretua bete ez ezik, informazio gehigarria ere badakargu —aparte eta era ikusgarrian—, ohartarazteko alergenoen trazak izan ote ditzakeen. 2018an, 541 produktu zenbatu genituen, marka propioan, glutenik gabekoak; beste 63 produktu, laktosarik gabekoak; 27, esnerik gabekoak; eta 7, arrautzarik gabekoak.

**Behar bereziak dituzten pertsonentzako EROSKI marken produktuak**

**541**  
produktu



**63**  
produktu



**27**  
produktu



**7**  
produktu





## Lankidetza hitzarmena Euskadiko Zeliakoen Elkartearekin

EROSKI Fundazioak eta Euskadiko Zeliakoen Elkarteak (EZE) lankidetza hitzarmen bat sinatua dute, eta elkarrekin dihardute elikadura espezifikoa behar duten pertsona zeliakoei elikagaietan erosketa baldintza hobek eskaintzeko.

Hitzarmen horren medioz, EROSKI %20ko deskontua eskaintzen die EZEko bazkideei glutenik gabeko produktuak erosten dituzten bakoitzean, izan EROSKI markakoak edo izan glutenik gabeko produktuen ekoizle espezifikoenak. Horri esker, behintzat kide bat bazkideduta duten familiek 300 euro baino gehiago

aurrez dezakete urtean. Hitzarmenak 1.460 laguni baino gehiagori ekarri dio onura 2018an.

EROSKIn, konpromisoa hartu dugu, halaber, gure glutenik gabeko produktuen eskaintza hobetzen jarraitzeko; gaur egun, 3.000 produktu baino gehiago ditugu, 2.500 marka liderretakoak eta, gainera, marka propioan glutenik ez dutela bermaturiko 541 produktu. Horietatik 10 espezifikoki zeliakoentzakoak dira. Haien errezetetan gariaren orde bestea osagai batzuk sartu dira: artoa, arroza eta oloa, horiek ez baitute glutenik. Produktu bakoitzaren

etiketan "sin gluten" etiketa jartzen dugu gorritz, identifikatzen errazagoa izan dadin.

EZErekin eginiko hitzarmenari esker, gure eskaintzako produktu berriak bazkideek testatuko dituzte. 2019rako, gure asmoa da hitzarmen gehiago egitea zeliakoen elkarteekin beste autonomia erkidego batzuetan, eta gero eta lurralde gehiagok izatea lankidetza horren abantailak